



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

558. zkia.

XIII. urtea

2006ko otsailaren 3a



Otsailak 4: Santa Ageda bezpera

Aterik ate ohitura zaharra berritzeko asmoz

PILAR IKASTETXEA



Elgoibar

GUREKIN HASI ETA HEZI

2 urtetatik, 16 urtera

Haur hezkuntza • Lehen Hezkuntza • D.B.H

MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA: Egunero 9etatik 19:00etra

ARGIBIDEAK: 943 741 331 telefonoan

E-POSTA: nsp42elg@planalfa.es



Laxy



Gure erakusketa bisita ezazu!



Atsedenerako koltxoietan markarik onenak ditugu!

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



AMAIA GORROTXATEGI

Ainhoatxo!

S.O.S! Problema existentzialak!

Zer gara? Nor gara?

Badakit estatu honetako jende gehienak deskubritu duela baina, deskuiduan konturatu ez bazara... pentsatzea oso txarra da!

Halere, azterketetan denbora soberan izaten dudanez, askotan jartzen naiz pentsatzen, nor garen eta nondik gatozen. Norra goazen ez badakit ere.

Ze polita mahats sorta batez bere "gihar ahalguztiduna" estaltzen zuen "Adan" izeneko mutiko "guapeto" baten saihetsetik natorrela sinestea eh!

Baina, ez. Zorritarrez, ez naiz honekin konformatzen, erlijioa sinesmenaren orde, sineskeria iruditzen baitzait gehienetan.

Halere, (oso urrun ikusi arren) ez zait horren arrotza suertatzen elizan zuriz ez-konduko naizen eguna.

Yasta!! Badakit zer naizen! Hipokrita bat naiz!

PD: Ainhoatxo, barkatu.

1) Goian soltau dizuten rollo patatero honegaitxik ("valeriana" gaindosia!!).

2) Gabonetako bertso saioko bronkatua. Ez nintzan ni, Sustrai ikusteko gogua zan nere ahotik hitz egin zabana!! Aizu!! Kazetaritza munduan ez bajatzu ondo juten, Zarzuelan zer, gaizki? Zu bezelako atezain efizientiak bihar ditxuztela entzun dot!

ZOZOAK BELEARI...



AMAIA GORROTXATEGI AINHOA MENDIBIL

Amaia!!!

Nor garen, zer garen jakin nahian ei zabilta. Animo ba!

Nik gero eta gutxiago pentsatzen dut horrelakoetan. Beno, gero eta gutxiago pentsatzen dut (neurona nonbait galdu ditudalakoan nago).

Erljiok ez ei dizu balio. Baina... bai, nahi dut eta bai, nik ere nahi dut; eta hor goiko horrek bedeinkatuko du zure maitasuna. Gero, hurrengo berriz elizara zure alabaren bataiorako edo sartuko zara.

Hipokrita bat eeh... ya, beno, bai. Ez dakit, akaso moda izango da hipokrita izatearena. Izan ere, denontzako beste ideal dagoen mundu honetan, itxuraz ez dago denei kasu egiterik.

Esplotazioaren aurkako gazteari IKEAK lagundu dio etxea modernizatzen; txinoen denda berezi horiek kritikatzeko dituenak koka-kola bat edaten du egunero; Mintxetara bidean Eguzki-ko txapa kamisetan duela bota du zigarroa batek kotxeko bentanatik... eta bitartean Ainhoa o sea, ni, gabonetako bertso saioan hogeita hamar bat laguni ezin zutela sartu azaltzen.

PD Examinak bukatuta hartuko dogun tragan ostian, barkatuta akaso. Ta Zarzuelakua... keba. Kapitalismuan kontra dauan gazte batentzat... gitxiegi pagauko dabe.

«Pentsatzea
oso txarra
dela konturatu
naiz»

AMAIA

«Nik gero
eta gutxiago
pentsatzen
dut»

AINHOA



GIZAKIAK EZ DIRA PATUAREN GATIBU,
EUREN IRITZIEN MENDEKO BAIZIK

F. Delano Roosvelt



Kaixo lagunok!

Hogei urteko kartzelaldia betetzen dudala-eta, zuentzat agur moduko zer-bait prestatzeko eskatu didate. Baina zer esan daiteke hogei urteko denboraldi batez?

Pentsatzen jarrita, duela hogei urte jaiotako haurra, orain gizon edo emakume egina dagoela iruditzen zait. Eta adin horretako edozeinek, atzera begiratuta, aspaldiko bizipenak balira bezala gogoratu eta kontatuko ditu bere haurtzaroko kontuak, lehen aldiz maitemindu zenekoa, edo ikasketa bidaiaren baten izandako gorabeherak.

Bizitza oso bat da hogei urte, bizialdi bat, eta denbora horretan herriak aldatzen eta auzo berriak sortzen ikusiko zenuituzten. Gizartea bera ere aldatu egiten da, zaharrenak badoazelako, gazteak badatozelako. Dena aldatzen da denborarekin.

Hogei urte eternitate bat da, eta hogei urte ez da ezer, tangoak dienez. Baina tango luzea da, nolahi ere, hogei urtekoa, eta are luzeagoa kartzelan bizitzeko.

Hogei urteko kartzelaldia zein luzea den, beste inork baino hobeto dakite presoekin senide eta etxeok. Astero, hila-

betero, urtero, hogei urtean hutsik egin gabe kartzelaz kartzela jarraitu diguten senide eta lagunak jasaten dute beste inork baino gehiago presoon sakabanaketa eta urrutiratzearen ondorioa, bai orain eta bai lehen. Euskal presoak Euskal Herriatik urrutiratu eta sakabanatzea ez baita gaur goizeko kontua. Duela ia 70 urte, esate baterako, Dueñas honetako kartzela zaharrera ekarri zituzten berrogeiren bat euskal elizgizon. Hemendik, Sevillako kartzelara eraman zituzten. Puerton, Canariar Uharteetan, Zaragozan eta Teruelen, Burgosen, Carabanchelen eta beste hainbat kartzeletan ere baizeuden orduan euskal presoak, eta haiek ikustera joateko, auskalo zelako trabak gainditu behar izaten zituzten beren senideek.

Eta orain dela berrogei ere kartzela horietara joaten ziren euskal herritarrek euren senide presoak bisitatzerako, eta duela hogei urte ere bai, eta gaur egun ere bai.

Egia da gauzak asko aldatzen direla denborarekin, eta orain kartzela berriberrietan gaude euskal preso asko; talantea ere berri egin da eta mitinero profesionalak hizkera gozoz aritzen dira. Gauzak asko aldatzen dira, itxura batera.

Baina gauzak benetan aldatuko badira, eta bost, hamar edo hogei urte berri espainiar kartzeletan euskal presorik egoterik nahi ez badugu, hitz ederrak eta promesa faltsuak baino zer-bait gehiago beharko da alde batetik. Eta, bestetik, gutako bakoitzaren lan handi edo txikia, guztion konpromezua eta ahalegina beharko ditugu, zaharrok gazteengana hurbilduz, gazteak erakartzen ikasiz, eta denok elkarrekin borrokatzen asmatuz. Herriaren askatasuna eta burujabetza lortzeko denon ahalegina beharrezkoa da. Gure ondorengo gazteei utzi diezaioketgun oparirik onena izango baita herri askatu batean bizitzeko aukera.

Har ezazue nire besarkadarik beroena, eta zintzo jarraitu!

JOKIN URAIN
DUEÑASEN. 2006KO URTARRILA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larraga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maiolen Olazabal, Iban Urizar, Koke KE, Uruzun, Unai Villena, Alaitz Vives **ESPERA ZAHARRA** Gatzen Garatzen liburukik **INPRIMATEGIA** Geru **TIRADA** 4.450 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurerriko Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

- **Sigma auzoa guztiz lagata dago:** "Sigma auzotik errepidera ateratzeko bide gurutzea oso arriskutsua da, autoak abiadura handiz etortzen dira, eta beti beldurrez gabiltza. Gainera, jende askok gaizki apartzen du autoa eta ez da ezer ikusten. Eguerdian autobuseko txoferrak ere bertan egiten du aldaketa, eta autobusa joan arte itxaron egin behar da errepidera ateratzeko. Bestalde, herriko parke guztiak berritu zituzten, baina Sigmakoa ez. Udaletxean askotan kexatu gara eta ez digute kasurik egiten".

- **Eskailera mekanikoak jende nagusiarentzat azkarregi doaz:** "Errotaberri auzoko eskailera mekanikoetan erori egin nintzen, eta ez naiz bakarra izan. Jende nagusiarentzat azkarregi doaz eta arriskutsuak dira eskailera mekanikoak. Larrialdietarako botoi bat dago, baina jendeak ez daki. Argi azaldu beharko litzateke honen funtzionamendua".



- **Basarte auzoko kale batzuk zuloz beteta daude:** "The End taberna dagoen kalean ikustekoak dira dauden zuloak, autoaren motelgailuak proban jarri eta izorratzeko primerakoak. Udalean konpontzeko asmorik ba al zuten galdetu nuen, baina urbanizazio hori oraindik "Grupo Eibar"en eskuetan dagoenez, Udalak ezin duela ezer egin erantzun zidaten. Grupo Eibarrera deitu nuen nire kexa azaltzeko. Denbora pasa da eta zuloak bertan jarraitzen dute. Hortaz, nire kexa urbanizazioa eraiki eta gestionatzeaz arduratzen den enpresarentzat doa".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12

komikia

Hil da gero... ez dakigu ze errima jarri...



Kokoe OAS

Gau-eskolatik euskaltegiara 50 urtean

1956: Estreinako GAU-ESKOLA Elgoibarren

1956an, Pako Juaristi zenak lortutako baimen bati esker, Euskaltzaindiaren ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA izeneko helduen GAU-ESKOLA jarri zen martxan Elgoibarren. Eta gau-eskola martxan jartzeaz bat, 80 lagun inguru hasi ziren euskara ikasten, batzuk euskalduntzen, eta alfabetatzen, besteak. Lanetik irten ondoren, astean pare bat egunetan joaten ziren euskara ikastera. Izen guztiak biltzerik izan ez badugu ere, gau-eskolako lehen ikasleen zerrendatxo bat emateko moduan gaude: Felix Etxeberria, Jesus Larrañaga, Miren Vallejo, Lourdes Alberdi, Begoña Andonegi, Pako Juaristi, M^a Angeles Lizundia, Jose Del Valle, Digna Flor Del Valle, Imanol Conde, Itziar Conde, Lazaro Esnal eta M^a Sol Gurrutxaga izan ziren, besteak beste, lehen euskara ikasleak.

Orduetik 50 urte pasa diren arren, Itziar Condek akorduan ditu orduko kontuak, "akordatzen naiz etxerako lanak eukitzen genitxuala. Astian behin juten giñan gau-eskolara, eta irakurtzen eta idazten ikasten genduan. Lokala Falangiana zan eta mahaiak zikin-zikinak egoten ziran. Lokalian zavan Espainiako banderia hartu eta haretxekin garbitzen genduzan mahaiak".

Eta zeinek ematen zituen gau-eskolak? Garai hartan herrian zeuden apaizen artean, bi oso euskaltzaleak omen ziren: Don Jose Juaristi azkoitiarra zen bat, eta Don Jose Antonio San Pedro eibartarra, bestea. Bi hauek izan ziren Elgoibarko estreinako gau-eskolako maisuak. Jakin dugunez, bi talde antolatu zituzten: bat, euskaraz zekitenei euskaraz irakurtzen eta idazten erakusteko zen; eta bestea, berriz, euskaraz ez zekitenei gure hizkuntza erakusteko. Don Josek alfabetatzeko taldea hartzen zuen, eta Don Jose Antonio euskaraz ez zekitenekin egoten zen.



JOSE LUISA HUERGO

GAU-ESKOLAKO IKASLEA
1975EAN

Jaiotzez Logroñoakoa izanik, Elgoibarrera iritsi bezain pronto hasi zen euskara ikasten. Hizkuntza oso polita iruditzen zitzaion euskara eta hemen bizitzeko euskara jakitea beharrezkoa dela iruditzen zaio. Gau Eskolan hasi zen eta oroitzen oso onak dituela kontatu digu.

• Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Duela 32 urte inguru. Logroñotik etorri ginen hona bizitzera eta euskara ikasi behar nuela pentsatu nuen. Zeretik hasi nintzen, ez nuen ezer ulertzen eta hitz bat ere ez nuen esaten euskaraz. Gau Eskolara joaten hasi nintzen.

• Zer moduz Gau Eskolan?

Primeran. 30 lagun inguru biltzen ginen ikasturte hasieran eta bukatzerako hiru edo lau gelditzen ginen. Nik ez nuen hutsik egiten.

• Irakasle onak izan al zenituen?

Bai, batez ere, Andres Alberdi. Nire irakasle kuttuna zen, euskara irakasteko zeukan metodologia izugarri gustatzen zitzaidan. Gaur egun oraindik berarekin hitz egiten dudanean erruak zuzendu

egiten dizkit, eta eskertzen diot. Gauza asko gaizki esaten ditut eta beharrezkoa da norbaitek zuzentzea, hurrengoan ondo esateko.

• Zer egin zitzaizun zailena?

Hitz egitea. Idazten berehala ikasi nuen eta orain ere ez daukat arazorik, baina hitz egitea zaila da. Lotsa kendu behar da. Nik ez daukat lotsarik eta berdin zait hanka sartzea, horrela ikasten da!

• Nola ikusten duzu euskara gaur egun?

Gure enpresan gero eta gehiago erabiltzen da. Gazteak hasi dira lanean eta euskaraz hitz egiten dute. Poz handia ematen di. Ume gehienek euskaraz ikasten dute gaur egun, beraz, hemendik urte batzuetara indar handia hartuko duela uste dut. Ezin da galdu!

[AKORDATZEN NAIZ]



MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

«Eskolia»

Plaza Txikixan ikasi naban, publiketan. Dana erderaz egitten gendun: euskeraz egittia, okurridu ere ez. Etxian bixetatik egitten gendun, euskeraz eta erderaz. Kalekua erderia zanez, gurasuak nahi zebeñ gu kalia ondo moldatzia, eta erderia ere erakutsi ziguen. Amamakin eta tiuekin euskeraz egitten gendun, baiña gehixo erderaz. Euskeraz eskribitzen eta irakurtzen ez naban ikasi; hori, dana erderaz ikasi gendun. Oñ, Arantzazuko fraillien kalendari-xuan atzian ipintzen dabana

irakurtzen dot, pixkat ulertzeko, eta kostau egitten jata.

Hemengo eskolia amaittu nabanian, 12 urtekin, Eibarren hasi nitzan akademixa baten kontabilidadia ikasten. Ni eta beste elgoibartar batzuk juten giñan trenian. Nere tia zan profesoria. Hau ere dana erderaz eman ziguen. Hori zan normalena.

Guk lagun artian ere erderaz egitten gendun; elizako sermoia ere erderaz zan. Euskeria ez gendun ahizten, baiña gehixo egitten gendun erderaz.



[GURE BERBAK]

Egittura aipagarri batzuk (4)

Konparazio bat egin gendun aurreko asteko azken pasartian; ba, konparaziuak egin nahi dittugunian, adibidez eta esate batera(ko) baiño aukera gehixago daguala esan bihar; hona adiñekuen batzuk:

- *Umieri ezin diogu lagundu. Ta, en kanbio, baldin badago bat, gazte bat... oin konparazio baterako, gure illoba, hogei urte dakazena, hor euskera batu hori ikesten, horrek lagundu leike asko umiari.*

- *Hor gauza asko esate joko, baiña beste izen bat esaten joko gauza askori, bai. Konparaziotarako, abarketak guk esaten doguna, aparketak han.*

- *Nola gabaz ibiltzen giñan eta berandu... Pentsaizu: jun konparazio baterako Madarixara eromerixara, gero hartu neskia, ta berriz etorri hona. Eta gero atzera berriz ere hara jun bihar. Ja, ja, ja!*

- *Hola gaztiak eta neskak edo, konparaziorako, neska kuadrillia kaleitik, edo erromeixatik etxera ta... gerrixan edo lotu katia ta, hara atzian, tarr!*

Jesus Mari Makazaga



X. URTEURRENA

1996ko urtarrilaren 31n, 28 urte zituela hil zen

Amaia Viñaras Uria.

Maite zaitugu, beti izango zaitugu gogoan.

Zure familia

SAGARDOAREN GAINKO DUDAK

Gero eta jende gehiago joaten da sagardotegietara, modan daude. Giro euskalduna, jateko bikaina eta sagardo goxoa. Baina, sarritan etortzen zaizkigu burua sagardoaren gaineko hamaika galdera eta inork ez dizkigu erantzuten. Gaurkoan, hainbeste aldiz burutik pasa zaizkizuen galdera horiek erantzuten saiatuko gara.

Noiz da txotx garaia?

Urtarrilaren erdialdera hasten da, San Sebastian egunaren inguruan, hilaren 20an, eta udaberriko lehenengo ilargi batera arte irauten du, Aste Santura arte. Egun, sagardotegi batzuetan ondoren ere sagardoa txotxetik edateko aukera dago.

Nola botata edan behar da sagardoa?

Bere zaporea oso osorik dastatzeko txinparta sortzeko adinako altueratik botata hautsi behar da. Bota ahala edatea komeni da, "gutxi eta maiz". Hemendik dator tragoa egin ostean soberan gelditzen dena botatzeko ohitura.

Sagardoa edateko edalontzi berezirik behar da?

Sagardoaren ezaugarri guztiak bere osotasunean dastatzeko edalontzi aproposena beira finekoa, gardena, ahozabala eta luzea da.

Botilak hondoan izaten duen "ama" txarra al da?

Sagardoaren prozesua naturala denez, batzutan "ama" deitzen dena azaltzen da, baina sagardoaren kalitatean ez dauka inolako eraginik, materia naturalak dira.

URBERU (Itziar-Deba)

- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Aste bukaeretan zabalik urte guztian zehar.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua eta karta. Espezialitatea: txuleta eta arraina parrilan.
- **LEKUA:** 130 lagun.



Elorriaga Auzoa, 2. ☎ 943199237

SAIZAR (Usurbil)

- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte guztian irekita. Igande gaua eta astelehen eguerdian itxita.
- **JATEKOA:** Txotxeko sasoiean Sagardotegiko menua eta jatetxean kartara urte guztian.
- **LEKUA:** 500 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Kale Zahar auzoa, 39 ☎ 943 36 22 28

SATXOTA (Aia)

- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik maiatza bukaera arte
- **JATEKOA:** Sagardotegiak jartzen du.
- **LEKUA:** 120 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Santio Erreka auzoa ☎ 943 83 57 38

AÑOTA (Azpeitia)

- **NAGUSIA:** Luis Mari Beloki
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarrilaren 14tik irailera arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiak jartzen du.
- **LEKUA:** 550 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Elosiaga Auzoa (Urraki) ☎ 943 81 20 92

TXOTX!!!

Egia al da sagardoak barrenak nahasten dituela?

Ez, edari naturala da sagardoa. Kupeletik zuzenean edo erabat egin gabeko sagardoa edanez, pertsona batzuei nahastura sortzen zaio.

Zein janarirekin edan behar da sagardoa?

Sagardoa edozein janarirekin edan izan da: arraina, haragia, barazkiak... guztientzat da egokia sagardoa.

Egia al da sagardoa osasungarria dela?

Sagardoa edari naturala denez, berez ona da. Edariaz egiten den erabilera ordea, txarra izan daiteke, dena dosiaren arabera da eta sagardoa ere tamainan kontsumitu behar da, bestela kaltegarria izan daiteke.



IZETA (Aia)

- **NAGUSIA:** Manuel Iruretagoiena.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte osoan irekita, sagardotegia eta jatetxea.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua. Karta badago.
- **LEKUA:** 200 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Izeta baserria (Urdaneta bidea) ☎ 943 13 16 93

SARASOLA (Asteasu)

- **NAGUSIA:** Inaxio Sarasola.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtariletik maiatza bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 180 lagun, eserita nahiz zutik.



DOLAREDUN
sagardotegia

Beballea Auzoa ☎ 943 69 02 83

OTATZA (Zerain)

- **NAGUSIA:** Ramoni Lopetegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtariletik maiatzera arte. Asteaz zehar iluntzean irekita. Igande iluntzean eta astelehenean itxita.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 140 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Otatza baserria ☎ 943 80 17 57

[PROTAGONISTA]



San Blas

Gaur, otsailak 3, San Blas Eguna da. Gure eskualdean san blas opilak eta ezterrako lokarriak bedeinkatzeko ohitura dago, baina, ba al dakizue nondik datorren tradizio hau? San Blas Armeniako sendagile eta obispoa izan zen. Ezterrako gaitzen patroia da, eta hauek sendatzeko zeukan gaitasunagatik zen ezaguna. Arrain hezur batekin itotzen ari zen ume bat sendatu zuen. Horregatik, bere egunean ezterrako lokarriak bedeinkatzen dira. 9 egunez jantzi eta gero erre egin behar dira urte guztian zehar ezterrako minik ez edukitzeko.

[NOTIZIA]

Udal plenoak aho batez onartu zuen Elgoibarko jasangarritasunerako plana

Udaleko Gobernu Batzordeak gainontzeko alderdi politikoen babesa jaso zuen, eta denek aldeko botoa eman zioten Elgoibarko jasangarritasunerako planari. Proiektu honen helburua herritarren bizi kalitatea hobetzea da batez ere, eta horretarako alor desberdinak landu dira (garraio publikoa, energia berritzagariak, sozio-ekonomia, ura, zaratak...) beti ere, ingurugiroa babestu eta hobetzeko medioak zainduz burututako proiektua. da.

Zinegotzien partaidetza urria

Proiektu hau Agenda 21 planaren barnean egin diren 7 herri bileretan gauzatu da. Bertan hainbat herritarrek hartu dute parte, beraien kezak eta beharrak



azaltzeko. Migel Anjel Mujika hirigintzako zinegotziak gainontzeko zinegotziei herri bilera horietan parte hartu ez izana leporatu zien: "Herritarren lanaren ondorioa da proiektu hau, eta Udal moduan aurrera eramatera derrigortuta gaude".

[ZENBAKIA]

86.940

Elgoibarko Udalak 86.940 euro inbertituko ditu San Rokeko haurzaindegia berritzeko. Artelu y Hargin eraikuntza enpresa izango da obrak egiteaz arduratuko den enpresa. Haurzaindegia handitu eta gune berriak sortzea da helburua, etxeko txikienei zerbitzu hobetua eskaintzeko asmoz.

asteko [ARGAZKIA]



Oraingoan teilatuak baino gehiago zuritu ditu elurrak. Mendiak eta klaeak zuri-zuri aurkitu genituen joan zen astean. Batzuentzat urteko egunik politenak, dudarik gabe. Ez ziren gutxi izan asteburuan elurretan gozatu zutenak! Plastikoa hartu eta mendian goitik behera ibili ziren batzuk, besteak elurretako panpinak egiten edota elkarri elurbolak botatzen. Beste batzuentzat, ordea, buruhasuteak haizak! baserritar asko etxetik atera ezinda, errepideak sekulako arriskuak, argia joan zen... Denon gustua egitea ez da erraza!

IMHko Txandakako Ingeniaritzako 7. promoziokoek diplomak jaso zituzten



Joan zen urtarrilaren 26an Txandakako Ingeniaritzako 7. Promozioko ikasleek ikasketa amaierako diploma jaso zuten. Guztira 18 ingeniari berri atera dira promozio honetan. Ekitaldi honetan politika, enpresa eta Ikastetxeko hainbat ordezkari izan ziren. Besteak beste, Joxe Joan Gonzalez de Txabari Gipuzkoako Aldun Nagusia, Alberto Ortueta AFMko lehendakaria, Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkatea eta Joxean Egaña IMHko zuzendaria. Hauetatuz gain, ikasleak eta hauen senideak ere izan ziren IMHko areto nagusian.

Txandakako Ingeniaritzaren beharra

Hiru urtetan lana eta ikasketak uztartuz eginiko ahalegina azpimarratu zuten ekitaldian, eta enpresa mundua ezagutzea gainontzeko ingeniariekin alderatuz abantaila bat dela azaldu zieten diploma jaso berriei. Joxe Joan Gonzalez de Txabari, bestalde, Euskal Gizarteak Txandakako Ingeniaritza moduko ikasketen beharra duela azpimarratu zuen bere hitzaldian. Honen hitzetan ingeniari profesionalak hezitzeko ezinbestekoa da ikasketak eta enpresa mundua uztartzea.

Urasandin eskailera mekanikoen 7. zatiko obrak hasi dira



Urasandi auzoko gorengo alderaino igoko diren eskailera mekanikoen obrak aste honetan hasi dira. Bikani enpresa ari da lanean. 416.713 euroko aurrekontua dauka proiektu honek, eta sei hilabeteko epean amaitzea aurreikusten dute. Eskailera mekaniko hauek Urasandin jartzen diren zazpigarrenak eta azkenak dira. Dударik gabe, Urasandiko bizilagunen egoera asko aldatu da azkenaldian, izan ere, King-Kong-eko zubia amaitzen den tokitik auzoaren gorengo alderaino igotzeko eskailera mekanikoak dituzte eta.

[MOTZ-MOTZIAN]

“Preso bat, Gara bat”

Presoek eguneroko informazioa jasotzeko duten eskubidea bultzatu eta bizi duten isolamendua aurre egiteko “preso bat Gara bat” jaialdia antolatu du Elgoibarko Askatasunak. Bihar, arratsaldeko 19:30ean txotx jaialdia egingo dute Madalako parkean eta 21:30ean saheskia, gazta eta menbrillo banatuko dituzte. Txotx txartelak 4 euro balio dute eta afariarekin 8 euro.

26 urteko kartzela zigorra hiru portugaldarrentzat

Elgoibarren 14 urteko bi neska gazte bortxatzeagatik epaitu dituzte hiru portugaldar, eta epaileak 26 urteko kartzela zigorra ezarri die. Gertakari hau 2004ko otsailaren 7an gertatu zen. 14 urteko neskek edanda zeuden eta mutilak etxera eramango zizutela esan zieten. Ermura bidean, ordea, buelta hartu eta bortxatu egin zituzten.

1951 eta 1966koen kinto bazkariak

1951. urtean jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute martxoaren 11n Sigma Jatetxean. Bazkaria eguerdiko 14:30ean izango da. Interesatuak jatetxera deitu dezakete izena emateko: 943 74 85 31.

Bestalde, 1966an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute martxoaren 11n Amaiur Bidean. Interesatuak 3035 0009 0090076097 Euskadiko Kutxako kontuan 20 euro sartu beharko dituzte.

Lourdesera bidaia

Datorren otsailaren 11n Lourdeseko Ama Birjinaren Eguna denez, elgoibartarrak bertara egingo dute bidaia. Goizeko 6:00etan aterako da autobusa. Bidaia eta bazkariaren prezioa 28,50 eurokoa da. Interesatuak 943 74 08 22 telefonoan jaso dezakete informazio gehiago.



IRAKASLEARI azterketa

DBHko irakaslea

ELENA MARTINEZ



1 Zergatik irakasle?

Betidanik gustatu izan zait, oso argi neukan irakaslea izan nahi nuela.

2 Ikasle fina izan al zara?

Oso fina, noizbait txuletaren bat erabili izan dut, eta suspentsoren bat ere izan dut, baina oso arraroa izaten zen nik suspenditzea.

3 Irakasle gogorra al zara?

Bai, oso exigentea. Niri asko exigitu zidaten eta nik ere asko eskatzen dut. Nire izaera horrelakoa da, nire buruarekin ere oso zorrotza naiz.

4 Zein izan da jarri duzun zigorrik txarrena?

Normalean gela guztia batera zigortzen dut, ez baita pertsona bakarrenen errua izaten.

5 Zer behar du irakasle on batek?

Ezagutza eta batez ere, ikasleentzat eredu izatea.

6 Zer ikusten da irakaslearen mahaitik?

Dena, beti esaten diet ikasleei.

7 Zaila al da suspentsoak jartzea?

Oso zaila, batzutan asko pentsatu behar da.

8 Irakasle ez bazina?

Itzultzailea edo idazlea.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



ANA REMENTERIA ama

1. Ibili al zara elurretan?

1. Ez, pixkat zapaldu dut baina gutxi.

2. Jan al duzu San Blas opilik?

2. Bai, probatu dut, baina etxekoa ez.

3. Zein izan da jaso duzun azken oparia?

3. Txandal bat.

4. Herriko lekurik gustukuena?

4. Plaza inguru.

5. Gorroto duzun janaria?

5. Orokorrean dena jaten dut.

6. Mendia ala hondartza?


6. Hondartza.

7. Egin duzun azken ametsa?

7. Ez dakit, gauza arraroak izaten dira.

8. Zer dago zure ohe azpian?

8. Ezer ez, batzutan hautsa.



SARA ARRIOLA alaba

1. Bai, kalean laguneri elur-bolak botatzen.

2. Ez. Ez zait gustatzen.

3. Bizikleta, erregeek ekarri didate.

4. Madalako parkea.

5. Arraina eta purea.

6. Mendia, elurretan ibiltzeko.

7. Ez dakit, "lo seko" egiten dut.

8. Beste ohe bat.

TXIKI inkesta

Zer dago ilargian?

Nekane Agirregomezkorta
6 urte

Telebistan ikusi nuen astronautak joan zirela eta betirako geldituko zirela ilargian.



Mikel Etxaniz
6 urte

Nire ustez ilargian gizaki txikiak bizi dira eta zerura begiratzerakoan ez dira ikusten.

Iker Lauzirika
6 urte

Niri argi dizdiratsua iruditzen zait, sumendia sutan dagoela eta monstro bel-durgarriak daudela imajinatzen dut.



Gorka Melgosa
6 urte

Nik uste dut ilargian argia dagoela eta bertan hildakoak bizi direla.

LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA



Elhuyar-ek eskainitako

"GIPUZKOA ZURE ESKU"

mahai jokoa + CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Ane Zuñiga**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com



Inkesta

Joan zen asteburuko elurteak endredu handiak sortu zituen errepideetan.

Endredua ala gozamena izan zen zuretzat joan zen asteburuko elurtea?

JULIAN JUARISTI

Eraikuntzako langilea
53 urte



“Endredua. Biltegia Mintxetan daukadanez, nahiko arazo izan nituen lanera joateko. Elurra mendian ikusteko ondo dago, baina kalean hobeto ez.”

UNAI ORTUOSTE

Ikaslea
10 urte



“Gozamena. Izugarri gustatzen zait elurra. Lagunekin ibili nintzen kalean jolasten eta oso ondo pasatu genuen. Dena txuri-txuri zegoen, oso polita.”

MELANI SAEZ

Ikaslea
13 urte



“Gozamena. Hotz handia egiten zuen, baina ondo jantzita atera nintzen kalera eta oso ondo pasatu nuen. Elurra asko gustatzen zait, paisajea oso polita jartzen da.”

J. MIGEL LASKURAIN

Kalitate arduraduna
37 urte



“Endredua eta gozamena. Elurra gustatzen zait eta gozatzen dut, baina errepideak garbi nahiago. Ostiralean lanetik bueltatzeko endredu handia izan nuen.”

[BAI ala EZ?]

Ikusten al diozu irtenbiderik lan istripuen arazoari?

BAI %76

“Bai, noski! Prebentzioa da irtenbidea, arriskuak gutxitzea eta segurtasuna handitzea. Baina horrek dirua inbertitzea eskatzen du eta enpresaburu askok ez diote dirurik eskaini nahi arlo horri.”

EZ %24

“Ez. Segurtasuna gastu bat gehiago da eta enpresari asko ez daude aurre egiteko prest. Gainera, langile askok ere ez dute ezartzen diren segurtasun neurriei kasu egiteko kontzientziarik.”

Datorren asterako.... **Urtarrilean zabaldu zen sagardotegi sasoi.**

Ba la daukazu sagardotegira joateko ohiturarik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) **ERANTZUNA**

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

GUREAN MERKATARITZA



IBAI

3 urtez Elgoibarko merkataritza euskalduntzen



Duela hiru urte GUREAN BAI-MERKATARITZA hitzarmen proiektua jarri zuten martxan Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek eta Elgoibarko Udalak elkarlanean.

Elgoibarko dendetan euskararen erabilera normalizatzea da hitzarmen proiektuaren helburua. Horretarako, hitzarmen orokorra sinatu zuten 133 dendarik 2003ko urtarrilean, bakoitzaren dendan euskara erabiltzeko konpromiso zehatzak hartuz. Guztira, 3 urte hauetan 145 dendak hartu dute

parte Gurean Bai-Merkataritza hitzarmen proiektuan. Denda bakoitzean euskarak zuen egoeratik abiatuta, neurriko edo plan espezifikoak diseinatu ziren, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera indartzeko. Elgoibarko Izzarren eta Udalaren zeregina, berriz, dendariei laguntzea eta Hitzarmenari eragitea izan da.

Proiektuaren lehen fasea amaitu denean, hiru urteotan egindako lanaren balorazioa egin dute eragileek, dendariak eta herritarrek. Dendarien

esanetan, proiektuak merezi izan du, eta lanean segitu behar dela adierazten dute; hala ere, haien esanetan proiektuak ez du erosleengan eragin handirik izan. Eragileek berriz, balorazio positiboa egiten dute, aurrerapausoak eman direlako eta dendariak gustura egon direlako. Azkenik, herritarrei egindako inkestetan, dendetan Gurean Bai-Merkataritzaren presentzia igartzen dela adierazten dute, nahiz eta %71k ez dakien Gurean Bai-Merkataritza hitzarmena zer den.

Eragileak:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



Elgoibarko Udala

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritza

Gurean Bai-Merkataritza Hitzarmena (2003-2005)



Dendariak, urtarrilaren 26ko errekonozimendu-ekitaldian banatutako agiriekin.


GUREAN BAI-Merkataritzan parte hartu duten 145 dendak

ABARKA zapata-denda • **AGIRRE** jostundegia • **ALBAITARITZA** klinika • **AMAIA MENDIKUTE** fruta-denda • **AMC** burdindegia • **AMPARO** urdaitegia • **ANTONIO FRAILE** harategia • **APRAIZ** lurrindegia • **ARAMBURU** bitxi-denda • **ARANTXA eta MARIAN** fruta-denda • **ARANTZAZU** estetika • **ARAURI** lurrindegia • **ARMUETA** harategia • **ARRIETA** modak • **ART B** enmarkazioak • **ART FRUT** fruta-denda • **AZALEA** apaindegia • **AZKUE** argazkiak • **AZKUE** enmarkazioak • **BARRUTIA** harategia • **BAZAR DESDE CIEN** opari-denda • **BIAK** ile-apaindegia • **BIDASOLO** farmazia • **BILBAO-EXPRESS** bidaiak • **BIRE** etxetresna elektrikoak • **BOLINTXO** okindegia • **BOUTIQUE DEL PAN** okindegia • **ASTIGARRAGA** kirolak • **CASCANUECES** egurrezko dekorazioen denda • **CASTRILLEJO** estankoa • **CO2** jantzi-denda • **COVIRAN** janari-denda • **CYBERWORD** bideokluba • **DOÑA MERCEDES** okindegia • **DORI** urdaitegia • **ECUADOR** bidaiak • **EDURNE** arrandegia • **EIZAGIRRE** okindegia • **ELENA** ile-apaindegia • **ELUSTONDO** edari-banatzaila • **EROSKI** bidaiak • **EROSKI CENTER** supermerkatua • **ETXEBERRIA ARRILLAGA** farmazia • **ETXEBERRIA** farmazia • **ETXEKIT** sukalde eta bainuak • **FADEK** ile-apaindegia • **FARMAPRAIZ** parafarmazia • **FERPI** arropa-konponketak • **FERPI** jantzi-denda • **FIDALGO** janari-denda • **G&M** jantzi-denda • **GARAGARZA** bitxi-denda • **GARATE** jantzi-denda • **GARBIÑE** estetika • **GAURKO** industria hornidurak • **GIPUZKOAKO INDUSTRIALA** arma-denda • **GOFI** umeen jantzi-denda • **GOIARA** lurrindegia • **GOROSTIZA** liburu-denda • **GORRITI** janari-denda • **GORROÑO** dekorazioa • **HALCON** bidaiak • **HURBIL** informatika-denda • **IBARRENEA** okindegia • **IDAMA** ile-apaindegia • **IDARRAGA** kafeak • **IKUS** optika • **ION** jantzi-denda • **IPINTZA** margoak • **IRIONDO** altzariak • **IRIONDO** kirolak • **ITZIAR SARASKETA** ortopedia • **IZAR** bideokluba • **JOSE ANGEL ZABALA** urdaitegia • **JOSE ANTONIO** ile-apaindegia • **JULENE** poltsa eta osagarriak • **JULIO BUENO** ardandegia • **KALA** loradenda • **KARKIZIANO** mertzeria • **KEMEN** belar-denda • **KONTXI** janari-denda • **KORTABERRIA** pentsuak • **LA TIENDA TELYCO** denda • **LAGUARIN** okindegia • **LANDA** harategia • **LARREATEGI** harategia • **LAZTANA** ume-denda • **LEIGAR** etxetresna elektrikoak • **LEIZABE** etxetresna elektrikoak • **LETE** jantzi-denda • **LIZZY** oinetakoak • **LOPEZ** izozkiak • **LUVIK** oinetakoak • **MAIDAGAN** jantzi-denda • **MAITE** gozotegia • **MARA CONFORT** zapata-denda • **MARI JOSE** gozotegia • **MARI KARMEN** urdaitegia • **MARIA ANGELES** fruta-denda • **MARIA URIZAR** ile-apaindegia • **MARY** harategia • **MASUMI'S** jantzi-denda • **MERINO** zapata-konponketak • **MG** burdindegia • **MOVELLAN** sukaldeak • **MURUAMENDIARAZ** gozotegia • **NATURHOUSE** dietetika • **NETTO** hipermerkatua • **OIN BERRI** Zentro Podologikoa • **OLATZ** sukaldeak • **OSORO** oinetakoak • **OSTARKU** argazkiak • **PATXI** harategia • **PIPES** umeen jantzi-denda • **PITXINTXU** liburu-denda • **PRESSTO** tindategia • **RUDITH** tindategia • **SAGAS** umeen zapata-denda • **SAHATZU** harategia • **SALEGI** gozotegia • **SARA** jantzi-denda • **SERVICASA** burdindegia • **SKANDALO** mertzeria • **SOFTLAN** informatika-denda • **SORALUZE** leihoak • **TEXTIL HOGAR LAGUNAK** denda • **THAIS** bitxi-denda • **TXANKAKUA** Merkataritza eta Zerbitzu Elkarteak • **TXILLARRE** barazkiak • **TXIMAK** ile-apaindegia • **TXIRIBOGA** taberna • **UGARI** burdindegia • **URASANDI** supermerkatua • **URZELAI** argiztapena • **UZURI** optika • **VICTORIA IRAEGI** kiromasajista • **XABIER** ile-apaindegia • **XIGORTZE** komertziala • **XIGORTZE** opari-denda • **YOMA** elektronika-denda • **YUDEGO** farmazia • **ZABALA** fruta-denda • **ZIARDA** harategia • **ZUR TA LUR** altzariak

Balorazioa

Konpromisoen betetze maila:

Sarreran esan dugun moduan, dendari bakoitzak konpromiso zehatz batzuk hartu zituen duela hiru urte. Ikus dezagun zein mailatan bete diren hartutako konpromisoak:



Alboko grafikoan ikusten den bezala konpromisoak maila onean bete dira. Maila onean eta oso onean bete dutenak, %49 izan dira; %16ak oso betetze maila ona izan du eta %33ak ona. Nahikotasun maila berriz, %40ak eman du, eta azkenik, %11k, konpromisoak maila txikian bete dituzte.

Dendarien balorazioa:

126 dendariren artean egindako balorazio-inkestak, besteak beste, honako ondorioak eman ditu:

- Dendarien %84ak proiektuan inplikatu direla uste du, nahiz eta gehiago egin dezaketela ere aitortu duten.
- %97ak balorazio positiboa egiten du, eta eskainitako zerbitzuarekin eta banatutako materialarekin pozik daude.
- Hala ere, dendarien ustez, ez da erosleen inplikazioa lortu, eta ez da hauen erosteko hizkuntza ohituran eragin.
- Konpromisoak betetzen laguntzeko eskaintzen den zerbitzua gehiago ezagutarazi behar da.

Herritarren balorazioa

2005eko azaroan 150 herritarrei egindako inkesten ondorio nagusiak:

- Inkestatutako herritarren %41ari ezaguna egiten zaio Gurean Bai-Merkataritza hitzarmen proiektua
- % 66ak Gurean Bai-Merkataritzarekin euskarak aurrera egin duela uste du, eta, ia denek, proiektua ondo baloratzen dute (%98)
- Hala ere, %71k ez daki Gurean Bai-Merkataritza zer den.
- Proiektu honek bezeroen erosteko hizkuntza ohituran eraginik izan ez duela % 81ak uste du.

Datuak:

- 9 dendarik jardun dute euskara ikasten.
- 3 dendarik Tertuliak programan hartu dute parte.
- 56 dendatan errotulua euskaraz dago.
- 71 dendatan (%54,3), ageriko idatzi guztiak euskaraz edo elebrietan daude (2003an %14).
- 102 dendatan (%77) euskaraz dakite.
- 74 dendatan, harrera beti euskaraz egiten da.
- 135 elementu euskaratu dira (poltsak, albaranak, nominak, bisita txartelak...). 83 euskara hutsean daude, eta 52 bi hizkuntzatan.
- Zerbitzuak: 448 itzulpen, 194 zuzenketa eta 39 aholku.



Amaia Arrizabalaga

Ziarda harategia

Gustura hiru urteotan egin eta lortu duzuenarekin? Oso gustora. Guretzako ekarri duen onuraz aparte, euskara ikasten ari den jendearentzat izan da mesedegarria. Euskaraz gaizki egingo duten beldurrez lotsatu egiten dira, baina norberak lehen berba euskaraz eginez gero, soltatu egiten dira.

Euskara bizitza errealean baliagarria dela ikusten dute? Bai. Eguneroko bizimoduan, erosketak egitean, euskara balekoa da. Zenbakiekin moldatzen dira hobekien, oso ondo ikasita joaten dira.

Bete al dituzue hartutako konpromisoak? Bai. Guk lehen horrenbesteko garrantzirik ematen ez genion arren, pixkat saiatu eta dendako giroa euskaldundu dugu. Hiru langile gaude, hirurak euskaldun zaharrak eta familiakoak, baina erdarara jotzen genuen. Orain gehiago egiten dugu euskaraz.

Bezeroen artean eragina izan al du? Jendea jakitun da zerbait badagoela. Jende asko dago euskaraz dakiena eta gutxi berba egiten duena. Nagusiek euskara darabilte dendan, baina adin ertainekoek ez. Ez da dendan bakarrik gertatzen, lagun artean eta beste hainbat arlotan ere bai. Gizarte kontua da.

Merezi al du proiektuak? Baietz uste dut. Horrelako gauza gehiago egin beharko lirakeke, giro euskaldunagoa sortzen laguntzen baitu. Halere, konstantzia bat mantendu behar da, osterantzean, jendea lehengora itzuli eta ahaztu egiten da-eta.



Lucia Casquero

Kemen belar-denda

Gustura geratu al zara 3 urteotan eginda-koaz? Bai. Aurreko teknikariekin gustura ibili naiz, baina azkenarekin konpondu naiz ondoen. Amaiak ideia asko ditu, sormen handia, eskatzen diodana berehala ulertzen du eta dauzkan medioekin gauza oso praktikoak egiten ditu. Laguntza handia eskaini dit.

Igarri al da zuenean Gurean Baitik egindako lana? Bai, nik behar handia neukan, eta oso garrantzitsua iruditzen zitzaidan dendan euskara bultzatzea, baina nire euskara maila oso mugatua da. Osasunari garrantzia handia ematen diot eta azalpen gehienak oraindik gazteleraz ematen ditut, baina jendea euskaraz agurtzen dut eta euskaraz kobratzen saiatzen naiz.

Bete al dituzue hartutako konpromisoak? Hori teknikariak esan beharko du, baina baietz uste dut. Ezin izan nintzen ekitaldira joan, baina badirudi diploma bat emango digutela gure lana eskertzeko. Nik Gurean Bai proiektuan sartu aurretik ere jartzen nituen kartelak bi hizkuntzatan, baina askoz gehiago kostatzen zitzaidan, ez neukan denborarik, ezta mediorik ere, eta itzulpenak askotan ez nituen ondo egiten. Nik gehiago daukat beraiei eskertzeko.

Jarraitzeko indarririk eta gogorik bai? Bai, merezi duen proiektua da, eta nik behintzat badaukat jarraitzeko asmoa.



Amaia Lasgabaster

Gurean Bai
Merkataritzako
teknikaria

Zein da egiten duzun lehen balorazioa?

Positiboa. Hasieran kostatu egiten da: dendariak eta herria ezagutu behar dira, Gurean Bai proiektuaz jabetu... Dagoeneko hainbat bisita egin ditut dendetara, eta konfiantza lortzen goaz. Ondo joan dira 6 hilabete hauek.

Zelan hartu zaituztete dendariak? Primeran. Batzuk opariak ere egin dizkirate!

Zer da dendariei gehien kostatzen zaiena?

Idatzizko dokumentazioa euskaraz jartzea. Bereziki denda barrurako erabiltzen dituztenak: fakturak, nominak, bankuko paperak... Gainera euskaraz hitz egitea ere kostatzen zaie bezeroekin gaztelaniaz egitera ohituta daudenei. Ageriko kartelak bi hizkuntzatan jartzen dituzte gehienek, eta euskara hutsean jartzeko ohitura ere hartu dute batzuk.

Bete al dira duela hiru 3 hartutako konpromisoak? Maila handi batean bai; nahikotasun maila ona eman dute. Badaude batzuk betetzeko maila txikia eduki dutenak (%11), baina, orokorrean, gustura gaude.

Lanaren alde onak eta txarrak? Alde onak, jendearekin daukadan harremana eta beraiei lagundu ahal izatea; lan txiki bat eginez sekulako laguntza eskaintzen zaie. Alde txarrak, berriz, momentu puntaletan; lana pilatzen denean eta guztiari erantzun ezinean zabiltzanean. Bestela, ez diot alde txarrik aurkitu.

Lanean segitzeko ilusioz? Bai, niri dago-kidanean orain hasten da benetako lana.

Bigarren etaparako asmoak? Alde batetik, dendariekin lanean segituko dugu, baina beste maila batean. Erosleengan ere eragin nahi dugu. Bestalde, merkataritzaren barnean bi alor berri begiz jota ditugu: Bata, ostalaritza eta, bestea, finantza erakunde eta ikasketa zentroak. Gure asmoa alor hauen diagnostikoa egin eta dauden lan aukerak aztertzea da. Ondoren, bietako bat aukeratu eta, urte amaierarako, plana prestatzea izango da nire lana.

JAIOTAKOAK



Laren Arnedo Zamorano
[Abenduak 28]
Ana Maria eta Antonio



Jon Diez Gurrutxaga
[Urtarrilak 4]
Alberto eta Zuriñe



Irati Nuñez Crespo
[Urtarrilak 5]
Angel eta Silvia



Ainhoa Arnedo Zamorano
[Urtarrilak 6]
Fernando eta Victoria



Jon Mendez Lavado
[Urtarrilak 7]
Fernando eta Ainara



Ekain Etxeberria Amilibia
[Urtarrilak 17]
Iosu eta Nerea



Erika Muñoz Robledo
[Urtarrilak 25]
Gorka eta Marivi



Asier Anchustegi Iglesias
[Urtarrilak 25]
Enrike eta Alicia

Solange Metola Suarez
[Urtarrilak 10]
Alberto eta Daissy-Brigitte

Nora Canton Gallardo
[Urtarrilak 11]
J. Javier eta Silvia

Carmen Blanco Calleja
[Urtarrilak 17]
Pedro eta Manuela

HILDAKOAK

Josefa Aramberri Arostegi • [94 urte] • Urtarrilak 1
Eladio Blanco • [55 urte] • Urtarrilak 1
Jose Epelde • [83 urte] • Urtarrilak 10
Daria Rivas Tesouro • [84 urte] • Urtarrilak 12
Roman Arriola • [78 urte] • Urtarrilak 14
Alejandra Munguia • [87 urte] • Urtarrilak 17
Guillermo Gorostiza • [61 urte] • Urtarrilak 23
Pedro Maria Muguerza • [65 urte] • Urtarrilak 24

EZKONTZAK

*Urtarilean ez da ezkontzarik izan Elgoibarren

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

GAZTIA NAIZ

ar**GAZ**kieTan...

SAN JUAN BOSKO

eguna



1 Kanpoko elurte eta hotzari aurre egiteko, patata tortilla bikainak prestatu zituzten BH Institutuko ikasleek. Neska, zein mutil, sukalderako trebetasun handia dutela erakutsi zuten.

2 Ummmmm! ederra benetan! Epaimahaikideek gustura probatu zituzten ikasleek eginiko tortilak.



3 Aire libreko ekitaldi guztiak bertan behera gelditu ziren elurraren ondorioz. Kirolegi barruan izan zen lehia bizia futbitoan.

4 Hori da hori! tira gogor! soka-tira saio bikaina izan zen Institutuko neska mutilen arte-





bituzik sexologia txokoa

Eider Arzelus [Sexologoa]

Maitasun ezak betetzen ditu tabernak

Zein da ligatzeko modurik onena? Nola esango diot gustuko dudala? ez da erraza, baina saiatu egin behar da. Metodo desberdinak daude, ohikoena parranda egunak izaten dira, baina... beti ez da ondo ateratzen. Gaurkoan gure sexologoak ligeekin zerikusia duen pasarte bat kontatu digu.

La *Cabra Mec-nica* musika taldeak bere abesti baten dio: *Áges la falta de amor la que llena los bares*Ág.

Hori horrela bada, Elgoibarren larunbat arratsaldetan maitasunak leku hartu nahi izango duela pentsa dezakegu tabernetako barretan, komunetan, herriko kaleetan, txoko izkutueta,Ác

Gaztetxoan eta ez hain gaztetxoan ahotik sari entzun ohi da Euskal Herrian

ez dela batere ligatzen, hau marka!! Hori dela eta, jai giroan murgiltzen garenean, eta eskuan edari bat dugularik, gauzak errazten direlakoan, banoa, hainbeste gustatzen zaidanarengana eta zirt edo zart! Aste honetan ausartuko naiz esan beharreko guztiak esatera! Horrela errazagoa omen dela diote.

Baina kaka zaharra! Usteak erdiak ustel! Nire gonbidapen erakargarriak, exi-

jentzia bortitzaren antza hartu zuen, nire hitz leun eta erakargarriak, esaldi nahasi eta moztuetan bilakatu ziren, maiteminduarazi nahi zuen nire begirada, berriz, begi oker eta begirada galdua izatera pasa zen, sabelean tximeletak sortzen dituzten laztanak, esku sartze baldar eta norabide gabekoak bihurtu ziren. En fin, desastre hutsa! Hau ez zen nik bilatzen nuen.



IKASTAROAK

BOLUNTARIO LANARI BURUZKO OINARRIZKO IKASTAROA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak boluntario lanari buruzko ikastaroa eskaintzen du. Baldintzak: Irabazi asmorik gabeko erakundeetako gazteak, boluntarioak, arduradunak eta teknikariak, astialdiko zuzendariak, gazteentzako informazio, ludoteka, gazteleku, udal eta abarreko teknikariak. Iraupena: Otsailaren 18 eta 25ean eta martxoaren 4an eta 11n (9:00-14:00) Hezkide Eskolan. Epea: otsailak 10. Informazioa: 943 311474.

ZAHARREN ARLOKO ESKULANEN TAILERRA

Hezkide Eskolak zaharren arloko eskulane tailerra antolatu du. Baldintzak: 21 urte beteta izatea eta zaharren arretako esparru desberdinetan lan egiten dutenak. Iraupena: martxoaren 4, 11, 18, 25ean (9:30-13:30 eta 15:30-19:30). Epea: otsailak 24. Informazioa: 943 311474.

EKINTZAK

FISICS COMMUM ELKARTEAREN HITZALDIA

FISICS COMMUM-ek Estralurtarren abdukzioei, Armamentu kimikoak eta biologikoak eta pilakako suntsipena, Teoria Lisis-trata, Antzinako Egipto eta Erdi Aroari buruzko hitzaldia antolatu du urtarrilaren 28an 17:00etan GAZTEGUNE(CRAJ)an. Informazioa: 900 110111 / 943 472617

BEKAK

REINA SOFÍA BEKAK, KANTUKO ALFREDO KRAUS KATEDRA. 2006-2007

Baldintzak: Kantu-karrerako goi-mailako tituludunak edo azken mailetako ikasleak, audizio-egunean gehienez ere 32 urte badi-tuzte. Balioa: Onartutako izangaiek 450 euro ordaindu beharko dituzte plaza gordetzeko. Matrikula-eskubideak 16.300 euro dira. Diru-laguntzak: Matrikularako beka edo Egoitzarako beka: Epea: otsailak 15. Informazioa: 91 3511060 (Goi Mailako Reina Sofia Musika Eskola).

EUROPAR BATASUNEAN IKASKETAK EGITEKO 550 FARO BEKA

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 550 Faro beka eskaintzen ditu. Baldintzak: Espainiako edozein unibertsitateko azken urteetako ikasleak. Lehenago Leonardo da Vinci programari dagokion beste bekarik jaso ez

izana. Aldi berean Erasmus programako beste bekaren baten onuradun ez izatea. Iraupena: Batez besteko iraupena 6 hilabetekoa da. Diru-laguntza: 440 euro hilean, bidaia-poltsa eta istripu, erantzukizun zibil eta bidaia-asistentziako aseguru. Hizkuntza eta kulturaren arloko prestakuntzarako 135 euro eskuratzeko aukera. Epea: otsailak 28. Informazioa: 902 218500

LEHIAKETAK

DONOSTIA OPERA PRIMA NARRATIBA SARIA

Ereinek, Euskadiko Kutxak eta Donostiako Euskara Patronatuak, Donostia Opera Prima Narratiba lehiaketa antolatu du. Baldintzak: Inoiz narratibako liburu bat argitaratu ez izatea. Lanak euskaraz idatziak eta jatorrizkoak izango dira. Lanak DIN A4 formatuan (2.000 karaktere orrialdeko) eta gutxienez 100 orrialdeko luzerarekin aurkeztuko dira. Sariak: 24.000 euro. Epea: abenduak 20. Informazioa: 943 483750

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461



Asteartetik ostiralera 16:00-19:00

SANTA ESKEA

Elgoibarko kale eta baserriak Santa Agedaren omenezko doinuez beteko dira bihar, hilak 4



Gure herrian Santa Agedaren omenez kopla kantari ateratzen diren bi taldeak: baserri-baserri aritzen den Elgoibarko Izarraren taldea, eta kalez-kale ateratzen den Etxegina Taldea, egun berean aterako dira, bihar, otsailaren 4an. Etxegina Taldekoak goizeko 9:00etan hasiko dira herriko kale eta auzoak koplaturaz, Etxeginak eta bere lagunek 1925ean hasitako usadioari eutsiz. Laz moduan 60 lagun inguru elkartzea espero dutela adierazi digute eta bi taldetan banatu ostean, 11:00ak aldera Urasandin elkartu,

eta La Union elkartean hamaiketako egingo dute, kalera batera itzuli aurretik. Eguerdiko 14:00ak inguruan Salbea abestuko dute Errosario kaleko amabirjinaren aurrean. Jesus Urizar eta Kepa Uraiz izango dira koplari nagusiak. Azken honek 25 urte bete zituen iaz Santa Eskean koplari.

Baserriz-baserri koplatan

13 urte beteko dira aurten Elgoibarko Izarrak baserriz-baserri Santa Eskean ateratzeko ohitura berreskuratu zuenetik. Aurten zapatuan denez, egun osoan jardungo du-

te. Goizeko 10:00etan 25 lagun inguru elkartuko dira Plaza Handian eta bi taldetan banatuta, iluntzeko 21:00ak arte jardungo dute koplari hainbat eta hainbat baserri-tan: San Migel, San Pedro, San Lorentzo, San Antolin eta Urruzuno baserri-auzoetan arituko dira. German Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaiza bertsolariak izango dira koplariak eta Baltzola anaiak eta Ekaitz eta Arantza trikitilariak. Kaletar zein baserri-tarrek Santa Agedaren omenezko doinu eta koplak entzuteko aukera izango dute, hortaz, makilkadek ezarritako eritmoan.



Bakearen Eguna Pilar Ikastetxean

Pilar Ikastetxeko ikasle eta langileek Bakearen Eguna ospatu zuten joan zen utarrilaren 31n, Mahatma Gandhi, bakearen Nobel Saridun indiarra hil zen eguna ospatzeko, hain zuzen ere. Bakearen alde otoitz egin ostean, globoak eta paperezko usoak askatu zituzten hurrek, sinbolismoz beteriko ekintzan. Gero, merienda solidarioan parte hartu zuten bertaratutakoek. Tortila pintxoak eta freskagarriak euro baten trukean saldu zituzten eta irabazitako diru guztia Miski taldearentzat izatea erabaki zuten. Dirua Peruko haur behartsuak eskolaratzeko bideratuko da.



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



AZALEA
edergintza

Orain mikropigmentazioa
eta laser depilazioa

Trenbide kalea, 3 - Tel. 943 74 03 10

ANTZERKIA

“Extras” eta “Andersen, ahateko itsusia” antzezlanak asteburuan

Herriko Antzokiko oholtzak bi antzezlan jasoko ditu asteburu honetan. Maskarada Antzerki Taldearen “Extras” lanak irekiko du oihala, gaur, hilak 3, 22:15etik aurrera. Hollywoodeko superproduzio baten filmaketak Irlandako nekazal herrixkako bakea nola apurtzen duen erakutsiko digu “Extras”ek. Protagonistak ez dira, ordea, filma grabatzen etorri diren bi zine izarrak, bi auzotar anonimo eta soil baizik. Jake eta Charlie-entzat egunerokotasunetik eta miseriatik atera eta miresten duten mundua, alegia, “amerikar ametsa”, gertutik ezagutzeko aukera ezinhobea da. Momentuz, extra

lanak eginez hasiko dira. 2001. urtean Londonen estreinatutako zenetik, bata bestearen atzetik pilatu dituzten sariak eta hainbat herritan antzezteko moldatua izan da.

Bigarren antzerki emanaldia gazte-oxoenei zuzendua dago eta Dar-Dar Produzioak taldearen eskutik iritsiko da domeka arratsaldean, 16:30ean. “Andersen, ahateko itsusia” Hans Christian Andersen idazlearen bizitza eta bere ipuin batzuetan dago oinarritua, (Ahatetxo itsusia, Poxpolu Saltzailea, Erregearen jantzi Berria eta Urretxindorra). Antzezlan honetan Andersen-en bizitza eta ipuinak uzartu egingo dira.



IMHk zortziehun enpresei galdetu die euskaraz ikastaroak egin nahi al dituzten



Enpresek beraien langileentzat eskatzen dituzten ikastaroak euskaraz egin ahal izateko baliabideak ezartzen ari da Makina Erremintaren Institutua.

Makina Erremintaren Institutuko hizkuntza politikak 2005-2015 urtetarako euskalduntze prozesua eratu zuen eta hainbat ekintzen barruan, formazio eta enpresa munduen arteko zubi lanak egitea da helburuetako bat. Heziketa iraunkorreko atalean, IMHko irakasle talde batek eskolak euskaraz eman ahal izateko heziketa jaso du urtean zehar, eta pixkanaka, ikasgai batzuren

materiala euskaratzen ari dira.

Irailean, IMHk harremana duen Euskal Herriko enpresei (800 enpresa), galdetegi zuzendu die, ekimen hau adierazi eta beraien langileentzako ikastaroak euskaraz jaso nahi dituzten galdetzeko. Jada badira interesa agertu duten enpresa batzuk eta IMH beraien jarriko da harremanetan beraien beharrik bideratzeko. IMHko “Goazen” ekimenak badiu laguntzaileak, besteak beste, Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Arantza Ferreirok irabazi zuen Beasaingo Soinu Zahar Txapelketa

Beasaingo Auresku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu zen joan zen urtarilaren 29an. Maiatzean jokatu den Gipuzkoako Txapelketaren finalerako proba puntuagarria zen eta probintzia guztiko dantzariak parte hartu zuten bertan. Tartean, Arantza Ferreiro, Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleak. Arantza, gaztekoen mailan (7-11 urte bitartekoak) lehiatu zen Soinu zaharretan, eta epaimahaiaren iritzi bera izan zen 21 nesken artean onena. Amaia Ostola oiar-tzuarra eta Sara Alkain hondarbitarra sailkatu ziren elgoibartarraren atzetik. Itziar Aldalur elgoibartarra sailkatu zen 4. postuan (argazkiak biak).



JUAN LUIS MUGERTZA

IDAZLEA

«Gaia ate joka etortzen bada bakarrik nabari dut idazteko beharra»



Berangon bizi den elgoibartarra da Juan Luis Mugertza. Euskal Filologian lizentziatua, euskara eta literatura irakaslea da bigarren hezkuntzan. Idaztea du afizio, baina beharra nabari duenean bakarrik dator sormena. "Mundiala mundua!" eta "Lunaren goiztiri" dira Juan Luis Mugertzaren azken bi lanak. Hamaika urtetik gorakoentzako bidaiak liburua lehen eta euskal presoen sakabanaketaren ondorioen gainekoa bigarrena. Apirilean, bere seigarren liburua kaleratuko du.

🦋 Zertaz doa "Lunaren goiztiri" liburua?

Presoen inguruan idatzitako lana da, sakabanaketa politikaren astakeriak salatze-ko, besteak beste.

Noiz edo noiz presoak bisitatzen joaten naiz eta Berangoko preso bat bisitatzen joan nintzen batean ezagutu nituen Kontxa Luna eta bere alaba Goiztiri. Horik izenburuko hitz-jokoa.

Izatez Cadizekoa da Kontxa eta Jose Mari Sagardui "Gatza" euskal presoak gartzelan zela ezkondu eta izan zuten alaba; Goiztiri, biziizan aurrera egiteko beren amore eta ilusioaren erakusgarri argiena. Kontxarekin izandako berriketa saio luzeen ostean sortu zen liburua. Berak eta alabak beste preso batzuen senitartekoekin autoz Jaen II espetxera egiten duten bidaiak ardatz hartuta.

"Gatzak" espetxean 25 urte egitera zihorean argitaratu zen liburua. Gartzelan denbora gehien daraman euskal preso da.

🦋 Oso bestelakoa da "Mundiala mundua!", ezta?

Bai, 11 urtetik gorakoei zuzendutako liburua da. Fantasiako liburua, errealismo magikoan koka daitekeena, eta aldi berean bidaiak liburua. Indiara egiten nuen bidaiak batetik sortutakoa.

🦋 Zuk idatzitako beste liburu bat argitaratuko da aurki?

Bai, nire seigarren liburua izango da. Datorren apirilean kaleratuko du Ibaizabal argitaletxeak. "Letra sopa eta eggea"

«Literaturan ezaguna ez bazara, hutsaren hurrengoa zara»

izenburua izango du. Ume nintzela gaizki ahozkatzen nuen erreka eta horren arikak idatzi dut zortzi urtetik gorakoentzako liburua.

🦋 Argitaratuko duzun seigarren liburua izango da, hortaz...

Bai. "Lehenengo aldiz" lehen sexu harremanei buruzkoa; "Aruma, urrezko ohianean" Venezuelara, Yanomamien artera eginiko bidaiak liburua; "Astoari konfiturak" hiria eta herriaren arteko bizimodu ezberdintasuna nabarmentzeko elgoibartarrez idatzitako liburua, arestian aipatu ditudan

azken biak eta bidean dena. Berria egunkarian erreportajeak atalean ere idatzi izan dut, bidaiak buruz gehienetan. Azkena Vietnam, Laos eta Campucheara egindako bidaiaren gainekoa.

🦋 Zure burua idazletzat al duzu?

Sasoi batean idazlea naizen galdetuz gero, ezet erantzungo nizuke, gaur egunean bigarren mailako idazlea naizela esango nuke. Idazlea, errespeto handiko berba da. Idaztea gogoko duen irakaslea naiz ni. Barruan behar bat nabari dudalako edo egoerak eskatzen duelako idazten dut, inoiz gaia ate joka etortzen bada bakarrik, sabelean dagoen zomorria baretzeko. Ez naiz enkarguz edo errotinaz egunero-egunero idazten duten horietakoa, ez naiz kapaz.

🦋 Gustatuko al litzazuke literaturaz bizitzea?

Ez dut diruagatik idazten, ez du merezi. Euskaraz idatzita, gainera, ia ezinezkoa da, oso gutxi irakurtzen da euskaraz. Literaturaren inguruan mugitzen den mundua oso oso gaiztoa da. Denean moduan, helburua saltzea da, eta saltzeko, lehenengo eta behin liburua ona izan behar da, baina izen bat edukitzea beharrezkoa da. Ez baldin bazara ezaguna, hutsaren hurrengoa zara. Alde handia dago, baita ere, zer argitaletzek kaleratzen dituen zure liburua.

MORKAIKO M.E.

Artikutzako parajeak eta Hernaniko sagardoa Morkaikoren urteko 2. irteeran

50 lagunek ezagutu zituzten Emioko inguru elurtuak joan zen asteburuan Morkaiko Mendizale Elkartek antolatzen zuen urteko lehen mendi irteeran. Azpeitiatik bertatik abiatu eta sei orduko txangoa egin ostean, Bidaniatik gertu jaso zuten autobusak. Argazkian ikus daitekeen moduan, elurra izan zen ibilaldiko protagonista nagusia, zuri-zuri aurkitu baitzituzten Azpeiti inguruko mendi tontor eta bailara guztiak.

Mendia eta sagardoa

Urteko bigarren ekintza berezia izango da, azken urteetan Morkaikoren irteera arrakastatsuenetakoa izateko ohorea baitu mendia eta sagardoa uztartzen dituen irteerak. Aurten Artikutzako paraje ederrak ezagutuko dituzte goizean, eta arratsalde-



an Hernani inguruko sagardotegian aseko dute egarria. Otsailaren 18an, zapatuan, izango da. Jadanik irekita dago izena emateko epea. Informazio gehiago www.morkaiko.net helbidean.

Euskadiko ibilgailu historiko bizkorrena



Zalantzarik gabe Renault etxearen urtea izan zen iazkoa motor munduan: Fernando Alonso munduko txapelduna izan zen 1 formulari. Josemi Gabilondok, gutxiago izan nahi ez, eta Mendiko Euskal Txapelketa irabazi du laugarren aldiz, Renault Alpine A-110 mitikoa gidatuz. Ibilgailu historikoen kategorian lortu du txapela elgoibartarrak, 25 urteko gorako autoen artean. Josemiren Alpineak 39 urte dituen arren, bere mailan eta karrozeria jarria duten mailan ere lortu du garaipena. Parte hartu duen lasterketa guztietan lortu du garaipena Josemik.

Lehen porrota xakelari elgoibartarrentzat

Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketan parte hartzen ari den Elgoibarko taldeak 3.5 eta 0.5 galdu zuen Azkoitiko Kakute taldearen aurka, txapelketako bigarren jardunaldian. J.L. Larrañagak lortu zuen berdinketa bakarra, taldeko beste hiru xakelariak oso gaizki jokatu eta partidak galdu zituzten. Hurrengo jardun-

naldian Mutrikuko Txaturanga taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Bestalde, Elgoibar Xake Taldeak haur eta nagusientzako xake ikastaroak antolatuko ditu. Klaseak taldeak Pista Beltzean duen lokalean izango dira martitzenetan. Umeentzako 17:00etatik aurrera eta nagusientzako 19:00etatik aurrera.

[EMAITZAK]

ESKUBALOIA

Dam Lea **28** - Tecnifuelle **28** (Senior mut.)
 Usurbil **30** - ANTT Softlan **23** (Senior. mut.)
 Lojantzi **24** - Galdakao **22** (Senior. nesk.)
 Pneumax **24** - OET-BKL **19** (Jub. mut.)
 La Salle **15** - Urmobitza **31** (Kad. mut.)
 Aterpe **32** - Pulpo **5** (Inf. nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 4

10:30 Elgoibar - Beasain (Inf. A)

16:30 Elgoibar - Legazpiko Gazteak (1. erreg.)

Domakia, 5

10:30 Elgoibar - Hernani (Inf. B)

12:30 Elgoibar - Zalla (Jub.)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 4

17:30 Aterpe - Olasa (Inf. nesk.)

19:00 Tecnifuelle - Escolapios (Senior. mut.)

Domakia, 5

11:00 ANTT Softlan - Aloña Mendi (Senior mut.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaria erregulararena 05/06

Jokalaria	Puntuak
1. David Morais	51
2. Navarrete	36
3. Arruti	30
4. Guinea	27
5. Iribar	26
6. Alex Del Rio	19
7. Loren	15
8. Orue	14
9. Etxabe	14
10. Iker Martinez	11
11. Kerman	9
12. Igartua	8
13. Jon Ruiz	5
14. Tarragual	4

Merkatua

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

† Pisua salgai Pedro Muguruza 31n. 3 logela, egongela, sukalde, komuna, trasteroa. Igogailu berria. ☎ **630 43 11 71**

† Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalde eta egongela. Balkoi handi eta eguzkitsua. Igogailua. Altzariekin. 34 milioi. ☎ **943 01 40 18/645 73 11 25**

† Luxuzko pisua salgai Elgoibarko Plaza Handian. 100m². ☎ **619 409 273**

† Etxea salgai Iñiguez de Karkizano kalean. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. ☎ **686 26 27 27**

† Madalan estreinatua gabe dagoen etxea salgai. 3 logela, egongela handia, bi komun, sukalde-jangela eta garajea. ☎ **696 79 41 81**

† Pisua salgai Santa Klaran. 2 logela, komuna, egongela, sukalde eta despentsa. Berogailu zentrala eta leiho berriak. 7 urte. Sartzeko moduan. ☎ **943 74 23 08**

† P. M. Urruzuno kalean, etxebizitza berrieta salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio eskuragarria. Iluntzean edo gauen deitu. ☎ **690 70 38 85**

ALOKAIRUA

† Pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ **610 45 85 52**

† Pisua hartuko genuke alokairuan. ☎ **943 53 17 33**

† Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **626 91 49 04 (Rosa)**

† Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **686 475 563**

† Pertsona batentzako pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke. ☎ **677 097 015**

[GARAJE eta LOKALAK]

† San Roke 5 kalean garaje marraduna alokatzen da. ☎ **943 74 14 36**

† Ametsa parean dagoen garajea alokatzen da. ☎ **615 78 78 57**

† Pista Beltzean garaje marraduna alokatzen da. ☎ **699 81 25 66**

† Garaje marraduna salgai Leku Ederreko 4. solairuan. ☎ **660 042 159**

† Lokal bat hartuko genuke alokairuan. ☎ **943 53 14 69 (Alex)**

† Lokal bat hartuko genuke alokairuan karabana bat gordetzeko. ☎ **943 74 29 52**

[AUTOAK]

† Ford Mondeo GLX SS-AU autoa salgai. Egoera onean. ITV pasatu berri, beti garajejan. ☎ **605 70 17 15**

† Kotxea saltzen dut. Seat Leon FR Sport TDI. 150 zaldiko indarra. FR plateatua. ☎ **609 888 653**

[BESTELAKOAK]

† Urbiolak eginiko eskopeta salgai. Bi kanoi, eta 60zm-ko beste kanoi bat. Egoera onean. ☎ **685 75 70 52**

† Lursaila salgai San Lorentzon. ☎ **943 74 23 06**

† 598x605x865 tamainako Fagor izozkailua salgai. ☎ **605 71 91 98 (Itziar)**

† Estreinatua gabeko sukalde salgai. Prezio onean. ☎ **635 74 71 45**

† "Colnago" bizikleta salgai. C50 karbonozkoa. Campagnolo Record. 10 abiadura. ☎ **609 888 653**

† Soinu handi bat salgai. Egoera onean. ☎ **943 74 19 30**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 88 20 04**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ **686 578 228/943 53 12 75**
- Mutila harategian lan egiteko prest. ☎ **615 00 83 46**
- Neska gaztea garbiketa lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **943 53 12 70**
- Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zaindu, garbiketa lanak, ostalaritza... ☎ **626 91 49 04 (Rosa)**
- Mutila kamarero, igeltsero, elektrikari... lanetarako prest. ☎ **652 72 94 00**
- Mutila kamarero, igeltsero, sukaldari laguntzaile... lanetarako prest. ☎ **626 198 659**
- Mutila kamarero lanetarako prest. ☎ **686 475 563**
- Neska goizez lan egiteko prest. ☎ **696 79 41 07**

- Klase partikularak ematen dira. Lehen eta bigarren hezkuntza. ☎ **943 53 10 54**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **646 235 195**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **697 97 50 26**
- Mutila lanerako prest: kamarero, garbitzaile, sukaldari laguntzaile... ☎ **660 927 566**
- Emakumea gauzez Mendaroko ospitalean gaixoak zaintzeko prest. ☎ **686 108 552**
- Bi neska lanerako prest: tabernan, nagusiak edo umeak zaintzen... ☎ **943 53 12 70**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako. ☎ **943748899/685724861**
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. ☎ **620 701 323**
- Emakumea garbiketarako edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699576107**

ESKAINZA

- Eibarko musika taldeak abeslaria behar du. Musika mota: Berri Txarrak, Soad, Metallica... ☎ **653748999/659385864**



- Donostiako enpresak **administraria** behar du. Eref. 162006001307
- Zarautzeko enpresak **mekanikako ingeniari teknikoa** behar du. Eref. 162006000608
- Bergarako enpresak **internet irakaslea** behar du. Eref. 162006001260
- Zumaiako enpresak **makineria elektrikoen muntatzaileak** behar ditu. Eref. 162006001291
- Gipuzkoako enpresak **haurtzaindegirako zainatzaileak** behar ditu. Eref. 1620056001265
- Arrasateko enpresak **elektrikaria** behar du. Eref. 162005011857
- Oñatiko enpresak **iturgina** behar du. Eref. 1620055013146
- Azkoitiako enpresak **banatzailea** behar du. Eref. 162006000658
- Oñatiko enpresak **mekanikoa** behar du. Eref. 162006000605

- Eibarko enpresak **CNC programatzailea** behar du. Eref. 162006001082

Hautagai moduan sartzeta eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentzura deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.


ABISUAK

- Sofa zaharrak eta telebistaren bat hartuko genituzke. ☎ **627 10 49 15**
- Perlazko eraztuna galdu dut Nettora bidean, turkesazko harribitxiak ditu. Oroigarri berezia da niretzat. ☎ **943 74 20 06 (Aurora)**
- Sofa zaharrak hartuko nituzke. ☎ **628 527 325**
- Urtarilaren 10ean Madalako errotondan istripua izan nuen, eguerdian. Lekuoen bila nabil. ☎ **680 319 002**

[ZORIONAK]



† Zorionak **Laura** gaur, otsailak 3, 6 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



† Urte bat pasa ondoren lehenengo urtea ospatzeko garaia iritsi zaizu. Ilkastolako laguntxoek igande on bat pasa dezazula opa dizugu. Zorionak!



† Zorionak **Eider!** Iritsi da San Blas eguna eta opilekin batera zure urtebetea ospatzeko dugu. Muxu handi bat familiakoen partez.



† Zorionak **Alejandro** atzo 7 urte bete zenituelako. Pedro eta Adrianaren partez, etxeko mimosoarentzat.



† Urtebete ixa-ixa, jateko mudukua, politta eta bizixa. Zorionak gure koplari txiki-xa!



† Zorionak **Eneko** asteartearen 6 urte egin zenituelako. Gurasoen partez muxu handi bat.



† Zorionak **Malen** igandean 4 urte handi egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



† Zorionak **Miren** herenegun 6 urte egin zenituelako. Nagore, aitaxo eta amaxoren partez.



† Zorionak **Oihane Urain** hilaren 7an 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez, gure neska politari.



† Zorionak **Koldo** urtarrilaren 31n 8 urte bete zenituelako. Etxeko guztien partez.

 Makina Erresistenten Institutua INSTITUTO de Maquina Herramienta		LANGILEENTZAT IKASTARO SUBENTZIONATUAK			
EUSKAL HERRIKO KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA		Orduak	Hasiera	Amaiera	Orduetgia
HORNIDUREN GESTIDA		50	13/02/2006	16/03/2006	18:00 - 20:30
CNC FRESATZEKO MAKINA (HEIDENHAIN) PRESTATU ETA PROGRAMATU		48	20/02/2006	18/03/2006	18:00 - 21:00
AUTOMATISMO ELEKTRIKO KABLEATUAK		45	20/02/2006	29/03/2006	19:00 - 21:00
CNC TORNUA PROGRAMATU (FANUC)		40	27/02/2006	30/03/2006	19:00 - 21:00
CNC TORNUA PRESTATU ETA PROGRAMATU (FAGOR)		40	27/02/2006	30/03/2006	19:00 - 21:00
CNC FRESATZEKO MAKINA PROGRAMATU (SIEMENS 810/840D)		48	27/02/2006	30/03/2006	18:45 - 19:00
METALAREN KONTRATU PROGRAMA					
PLANDEN BIDEZ ERREMINTA AJKERAKETA		20	13/02/2006	23/02/2006	18:30 - 21:00
ROBOTIKA		20	15/02/2006	09/03/2006	19:00 - 21:00
AUTOCAD		32	20/02/2006	16/03/2006	19:00 - 21:00
ELECTROHIDRAULIKA E HIDRAULIKA PROPORZIONALA		30	20/02/2006	15/03/2006	19:00 - 21:00
SMED. SISTEMA TRESNERIAREN ALDAKETA AZKARRA		16	20/02/2006	08/03/2006	18:00 - 20:00
PROZESUEN KONTROL ESTADISTIKOA		16	20/02/2006	02/03/2006	18:00 - 20:00
CNC INSTALATU ETA MANTENTZE LANAK		20	22/02/2006	09/03/2006	17:00 - 19:00
ORDEGANAGAILUZ LAGUNDUTAKO FABRIKAZIOA: CAM POWERMILL		40	27/02/2006	30/03/2006	19:00 - 21:00
CNC TORNUA, ELKARRIZKETA BIDEZKO PROGRAMAZIOA (FAGOR TC)		32	27/02/2006	23/03/2006	19:00 - 21:00
CNC FRESATZEKO MAKINA, ELKARRIZKETA BIDEZKO PROGRAMAZIOA (GIDALIBURUA GUIDE FANUC + FAGOR MC)		40	27/02/2006	30/03/2006	19:00 - 21:00
5S INPLANTAZIOA		16	27/02/2006	09/03/2006	18:00 - 20:00
BESTE IKASTAROAK (BONIFIKAZIO SISTEMA)					
MMC 2. MAILA: CAD AJURKAKO NEURKETA (PROGRAMA: PC DMIS)		20	20/02/2006	01/03/2006	17:00 - 20:00



[OKINDEGIA]



5 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

- 3 GUARDIA 24 ORDUZ
- 4 Etxeberria (Errosario)
- 4 Ibañez
- 5 (* Goizez Etxeberria, Santa Ana)
- 5 Ibañez
- 6 Bidasolo
- 7 Etxeberria (Santa Ana)
- 8 Fernandez
- 9 Yudego
- 10 Bidasolo

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBÁÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandek eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

DONOSTIA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandek eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Astebururak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena; 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

[3 BARIXAKUA]

22:15 ANTZERKIA
 Antzezlan: "Extras"
 Taldea: Maskarada Antzerki Taldea Herriko Antzokian

[4 ZAPATUA]

09:00 ETXEGINA TALDEAREN SANTA ESKEA HERRIKO KALE ETA AUZOETAN

Irteera: Bolatokitik
 Antolatzailea: Santa Eskeko "Etxegina" taldea

10:00 SANTA ESKEA BASERRIZ-BASERRI

Irteera: Plaza Handitik
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte

11:30 HERRI ESKOLAKO ATE IREKIEN EGUNA

Herri Eskolako eraikin nagusian Goizean zehar tailerrak eta jolasak

16:30 MARSEL MAGOA
 Herri Eskolako Ate Irekien Egunean

19:30 "PRESO BAT GARA BAT" TXOTX JAIALDIA
 Madalan

ALBOKUAK inmobiliaria

URASANDI
 80 m², 3 logela, saloia, kanuna, sukaldea, trastelekua, ganbara, bizitzera sartzeko moduan. Egoera ezin hobean.

ERDIALDEAN
 90 m², 3 logela, saloia, sukaldea, kanuna, trastelekua, bizitzera sartzeko moduan.

BASARTE
 3 logela; 1 kanunarekin. Komun 1, sukaldea, lehortegia. 90m². Garaje itxia, 18m² (aukeran).

1 eta 2 LOGELAKO ETXE BERRIAK ERROSARIO

Errosario, 12 • Tel.: 943 74 06 73

Lanbroa

Gosariak Pintxoak Bokatak Plater konbinatuak

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
 Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

[5 DOMEKIA]

16:30 ANTZERKIA

Antzezlan: "Andersen, ahateko itsusia" (euskaraz)
Taldea: DAR DAR Produkzioak (6 urtetik gorakoentzat)
Herriko Antzokian

[8 EGUAZTENA]

18:30 HITZALDIA

Gaia: Portaera desegokien ulemena eta estimulazioa (norbere buruan konfidantza, e.a)
Hizlaria: Luis Cerron
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Antolatzailea: Herri Eskolako Gurasoen Elkarte eta Elgoibar BHI

[10 BARIXAKUA]

19:00 "LA TIERRA DE LOS PASOS PERDIDOS" ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Egilea: Juan Ramon Llavori
Kultur Etxeko Erakusketa gelan
Hilaren 26ra arte

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«En sus zapatos»

4, zapatua: 19:30-22:15

5, domekia: 19:30-22:15

*6, astelehena: 21:30

«Fugitivos» (Zine Kluba)

*9, eguena: 21:30

«Plan de vuelo: desaparecida»

10, barixakua: 22:15

**Adi!! ordutegi berria*

EIBAR, UNTZAGA

«Underworld»

3, barixakua: 19:30-22:15

4, zapatua: 17:00-19:30-22:15

5, domekia: 17:00-19:30-22:15

6, astelehena: 19:30-22:15

7, martitzena: 19:30-22:15

8, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«El imperio de los lobos»

3, barixakua: 19:30-22:15

4, zapatua: 17:00-19:30-22:15

5, domekia: 17:00-19:30-22:15

6, astelehena: 19:30-22:15

7, martitzena: 19:30-22:15

8, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«En sus pies»



Zuzendaria: Curtis Hanson.
Antzezleak: Cameron Diaz, Toni Collete,
Maggie (Cameron Diaz) institutua ozta-ozta gainditu duen neska eder eta alaia da. Ezin du lanik topatu eta etxerik gabe lagun guztien etxeetatik pasa da. Mutilengan duen arrakastaz harro dago eta habilezia du ondo doakion arropa aukeratzeko. Rose Princeton unibertsitate prestigiotsuan ikasitako abokatua da. Gustu handiz dekoratutako etxe batean bizi da, ia bertatik atera gabe. Beti dabil pisuarekin borrokan eta sekula ez da gustura sentitzen janzten dituen arropekin.

«Fugitivos» (Z.K.)

Zuzendaria: André Téchiné.
Antzezleak: Emmanuelle Béart, Gaspard Ulliel.
1940ko ekaina, Paris. Gudaloste alemaniarrek hirian sartu dira. Nazien beldur hegoalderatz ihes egitea erabakiko du Odilek, irakasle alargunak, bere bi semeekin batera. Hiririk 50 kilometrorra, hegazkin batek eraso eta soinean zeramatzaten ondasun guztiak galduko dituzte. Ezerezetik aterako den mutil kaskamotz batek lagunduko die kinka larritik ateratzen. Yan du izena eta 17 urte ditu. Laurak abandonatutako etxe batean babestuko dira. Odile, bai, ez da Yan analfabeto eta basatiaz fido.

Atzera begira



1971 . urteko erretratu zahar hau **Pilar Muruamendiarazek** laga digu. 1966. urtean jaiotako umeak ageri dira argazkian, 1971-72 ikasturtean hain zuzen ere. Goitiko lokalean aterata dago argazkia. 5 urteko 35 umeak osatzen zuten gela hau. Irakaslea Jone zen, baina garai hartan Juanita deitzen zioten. Esan digutenez, sekulako pazientzia zeukan! Argazki honekin gaur egun gure artean joan diren klasekideei omenaldi txiki bat egin nahi diete, errespetu eta maitasun handiz. Gogora ditzagun zein diren ume hauek. Ondorengo urteetan hasitako Esther Mugerza eta Jesus Ubera falta dira argazkian.

Goian, ezkerretik eskumara: **Felix Larrea (†), Eduardo Arozena, Roke Irigoyen, Abel Iriondo, Jone andereñoa, Ruben Arozena (†), Martin Gil, Adrian Langara, Imanol Etxaniz, Ernesto Ezenarro.**

Bigarren ilaran: **Martin Urigoitia, Idoia Arriola (†), Iker Zulaika, Maite Galdos, Maite Solozabal, Nerea Lodoso, Amaia Astigarraga, Marta Echave, Isabel Alberdi.**

Hirugarren ilaran: **Maite Altzibar, Edurne Bilbao, Pablo Lizundia, Ana Jauregi, Susana Azpilikueta, Berta Castellanos, Nerea Gabilondo, Amaia Aristimuño, Maria Lasa, Bernardo Intxausti.**

Behoko ilaran: **Miren Nogero, Jon Sanz, Eduardo Viteri, Kristina Gonzalez, Mikel Arrieta, Alberto Mujika, Agurtzane Lizarriturri eta Esther Iureta (†).**



I. URTEURRENA

2005eko otsailaren 6an, 71 urte zituela hil zen

Trino Sasiain Etxanizen

oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, otsailak 4, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK: GEUREA


MATRIKULAZIOA

2006 - 2007

OTSAILAREN 4tik 17ra

OTSAILAREN 4ean ate irekien eguna.

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-posta: 012777aa@hezkuntza.net



Euskadi
2 0 0 4

EUSKO JAURLARITZA



HEZKUNTZA
UNIBERTSITATE eta
IKERKETA SAILA

baikara
Bazkaria Basilea
Bazkaria Iratzeak

Elgoibarko Institutua

San Roke, 11

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



Etorri eta ezagutu
IKASTOLA

Matrikulazioa
otsailaren
6tik-17ra



elgoibar ikastola

☎ 943 744441

elgoibar@ikastola.net

